



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2012IPLE0004

**Eguna:** 2012-04-26

**Ordua:** 19:00-20:30

**Tokia:** Areto nagusia

#### Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	BILDU
- Maite Olatziregi Esparza	BILDU
- Agin Rezola Laburu	BILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz	BILDU
- Berta Arozena Bergara	BILDU
- Isabel Otero Glorie	BILDU
- Raul Redín Hernández	BILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

#### Bertaratu ez direnak

-

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2012ko martxoaren 28ko aktaren onarpena	1	Aprobación del acta de 28 de marzo de 2012
2011ko likidazioaren onarpenari buruz Alkatetzako Dekretua berrestea	2	Ratificación del Decreto de Alcaldía sobre la aprobación de la liquidación 2011
Atzera bidezko akzioaren Alkatetzako Dekretua berrestea	3	Ratificación del Decreto de Alcaldía sobre la acción de regreso



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

<b>Informazio, eskariak eta galderak</b>	<b>4</b>	Información, ruegos y preguntas
--	----------	---------------------------------

### Esan-eginak eta erabakiak

1. **2012ko martxoaren 28ko aktaren onarpena**

Akta, aho batez, onartu da.

1. **Aprobación del acta de 28 de marzo de 2.012**

El acta es aprobada por unanimidad.

2. **2011ko likidazioaren onarpenari buruz Alkatetzako Dekretua berrestea**

Alkateak 223/2012 dekretuaren berri eman du; z dekretu honen bitartez Udaleko 2011ko likidazioa onartu da eta adierazi du honako erabakiak jasotzen dituela:

Lehena.- Udala Propioaren 2011ko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea, honako laburpenaren arabera:

.- Altxortegi gerakin garbia : 1.324.369,81€.  
.- Aurrekontuaren emaitza doitua: 1.178.032,30.  
.- Txertatu daitezken kredituak: 631.884,02€

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak 49.5 artikuluan xedatzen duen arabera.

Hirugarrena.- Dekretu honen berri Osoko Bilkurari ematea hurrengo bileran.

Alkateak adierazi du hurrengo ogasun-batzordean aztertuko direla likidazioaren edukiari buruzko xehetasunak.

2. **Ratificación del Decreto de Alcaldía sobre la aprobación de la liquidación 2011**

El alcalde da cuenta del Decreto 223/2012 emitido para la aprobación de la liquidación del ejercicio 2011 en el que se acuerda:

Primero.- Aprobar la Liquidación del ejercicio 2011 correspondiente al Ayuntamiento Propio , cuyo resultados son:

.- Remanente de Tesorería Líquido: 1.324.369,81€.  
.- Resultado Presupuestario ajustado: 1.178.032,30.  
.- Remanentes de créditos incorporables. 631.884,02€.

Segundo.- Remitir copia del expediente a la Diputación Foral de Gipuzkoa según lo dispuesto en el artículo 49.5 de la Norma Foral.

Hirugarrena.- Dar cuenta del Decreto al Pleno del Ayuntamiento.

El alcalde manifiesta que los detalles del contenido de la liquidación serán analizados en la próxima comisión de hacienda.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### 3. Atzera bidezko akzioaren Alkatetzako Dekretua berrestea

Alkateak adierazi du aurtengo apirilaren 23an bildu zela Hirigintzako Informazio Batzordea, apirilaren 18ko 275/2012 Alkatetzako Dekretua aztertzeko, hau da, Mikel Zabala Arregi alkate ohiaren atzera bidezko akzioaren espedientearen instrukzioa izapidetu ondoren emandako ebazpenari buruzkoa.

Batzordeko buruak proposatu zuen 275/2012 Dekretua Osoko Bilkuran berrestea.

Informazio Batzordeak erabaki zuen, Bilduren aldeko 3 botorekin eta EAJren aurkako 2 botorekin, Osoko Bilkurara eramatea honako akordio hauek, hark berrets ditzan:

**Lehena.-** Mikel Zabala jaunaren aurkako atzerabidezko ekintza bidezkoa dela deklaratzeko, Zabala jaunak Astigarragako Udalari eragindako emaitza kaltegarri baten ardura duelako; izan ere inputatuak Elgojebi SL sozietatearekin 1995eko maiatzaren 9an sinatutako Hitzarmenaren ondorioz, Astigarragako Udalak 562.194,87€-ko kalte-ordaina eman behar izan dio aipatutako merkataritza-sozietateari. Auzitegiek, bestalde, adierazi dute hitzarmena baliogabea eta hutsala dela. Hitzarmen horren arabera, Zabala jaunak, denbora hartan udalerrri horretako alkate zenak, prozedura- eta eskumen-alorre dagokien araudia nabarmen urratu zuen, juridikoki bidegabea den aprobetxamendua gutxitzeagatik konpentsazioa aitortu ziolako merkataritza-sozietateari kalte-ordaina jasotzeko fikziozko eskubidean oinarrituta; horrez gain, ezarri zuen enpresaren kargura izango zela lurzoru baten lagapena, eta hori guztia ezein interes publikotan oinarritu gabe.

### 3. Ratificación del Decreto de Alcaldía sobre la acción de regreso

El alcalde intervine señalando que la Comisión Informativa de Urbanismo reunida con fecha 23 de abril del presente año, analizó el Decreto de Alcaldía 275/2012, de 18 de abril, sobre resolución recaída tras la instrucción de expediente de acción de regreso al ex alcalde Mikel Zabala Arregi.

El Presidente de la Comisión propuso la ratificación del Decreto 275/2012 por el Pleno.

La Comisión informativa con 3 votos a favor de Bildu y 2 en contra de EAJ/PNV, Hamaikabat, decidió elevar al Pleno la adopción de los siguientes acuerdos para ser sometidos a su ratificación por el Pleno:

**Primero.-** Declarar la procedencia de la acción de regreso contra D. Mikel Zabala por resultar responsable de un resultado dañoso para el Ayuntamiento de Astigarraga consistente en haber tenido que indemnizar a Elgojebi S.L. en una cantidad de 562.194,87€ a consecuencia del Convenio firmado por el inculcado con la citada mercantil en fecha 9 de mayo de 1995, en el que el citado Sr. Zabala, a la sazón alcalde del municipio, con infracción flagrante de la normativa en materia procedimental y competencial hasta el punto de que los Tribunales han declarado el convenio como nulo e inexistente, reconoció a la mercantil una compensación por decremento de aprovechamiento jurídicamente improcedente por basarse en un derecho a indemnización ficticio, estableciendo además a cargo de la empresa la cesión de un suelo, todo ello sin base en interés público alguno.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

**Bigarrena.-** Erabaki honen berri ematea Osoko Bilkurari berriazko ondorioak izan ditzan.

**Segundo.-** Dar cuenta de este Acuerdo al Pleno a los efectos oportunos.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honako honen berri emanez: Errenta eta Zerga-bilketa Arloaren bitartez jakinaraziko zaizkio borondatezko epean ordaintzeko epeak eta aipatutako betebeharra likidatzeari buruzko gainerako prebentzioak, baita horren inguruan dauden errekursoak ere.

**Tercero.-** Notificar este acuerdo al interesado con información de que por el Area de Rentas y Recaudación municipal se le notificarán los plazos de pago en periodo voluntario y demás prevenciones sobre la liquidación de la mencionada obligación, así como de los recursos que caben frente al mismo.

**Laugarrena.-** Erabaki honen berri ematea Errenta eta Zerga-bilketa Arloari, hartutako erabakia bete dadin.

**Cuarto.-** Notificar, para su cumplimiento, este acuerdo al Area de Rentas y Recaudación municipal.

**Irizpena bozkatu da, eta onartu egin da, aldeko 7 botoekin (Bildu), kontrako 4 botorekin (2 EAJ/PNV, 2 H1)**

**Sometido a votación el dictamen es aprobado con 7 votos a favor de Bildu, y 4 en contra (2EAJ/PNV,2H1).**

Alkateak hitza hartu du, 2012ko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran hartutako akordioaren arabera espedientearen izapideak gauzatu direla adierazteko. Espediente hori Hirigintza Batzordeak aztertu zuen eta zinegotzien esku egon da. Espedientearen instrukzioan hainbat pertsona deitu dituzte lekuko gisara, eta egiaztatuta gelditu da prozesua bukatutakoan:

1. Mikel Zabalak sinatutako hitzarmenean jasotakoaren arabera indemnitzatu beharreko aprobetxamenduen murrizketak ez direla indemnitzatu behar, eta hirigintza-legediaren arabera ez zuela inolako eskubiderik kalte-ordainik jasotzeko.

2. Hitzarmena legez kanpokoa zela.

3. Sinatzaileak zabarkeria larriz jardun zuela.

El alcalde interviene señalando que conforme al acuerdo adoptado en el pleno de fecha 26 de enero de 2012, se ha desarrollado la instrucción del expediente que fue analizado en la Comisión de Urbanismo y que ha estado el expediente a disposición de los concejales. En la instrucción del expediente han sido llamados como testigos distintas personas, y la instrucción del expediente una vez concluida ha quedado demostrado :

1º.- Que la reducción de aprovechamientos que en el convenio firmado por Mikel Zabala se recogen que deben indemnizarse, no debía indemnizarse y que no tenía derecho a indemnización conforme a la legalidad urbanística

2º.- Que el convenio era ilegal,

3º.- Que el firmante actuó con negligencia grave.

Zorione zinegotziak adierazi du orduan

Interviene la concejal Zorione indicando



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Hirigintza Batzordean esandakoarekin ados dagoela. Adierazi du ez dutela instruzkioaren berri izan eta taldearen eskura jarri den dokumentazioaren osotasunean aztertzeko denbora asko eta ezaguera espezializatuak behar direla, edukien trinkotasuna dela medio.

Gai horrekin Bildu joko politikoa egiten ari dela esan du, eta ez dela egokia pisu osoa pertsona baten gainean jartzea. Horrek ez du ibilbiderik.

H1eko zinegotzi Bixente Arrizabalagak hartu du hitza. Adierazi du Hirigintza Batzordean esandakoa berresten duela eta Bilduk inkisizioa berpiztu duela. Ondoren, besteak beste adierazpen hauek jasotzen dituen idatzi bat irakurri du:

. - Gai hau luze eta zabal eztabaidatu zen joan den legealdian.

. - Orduko EAko alkate Mikel Zabalaren kudeaketaren ondoriozko legealdia inoizko oparoenetako bat eta aurrerapen handienekoa izan zela Astigarragaren garapenean. Legegintzaldi hartan Bidebarteko lursail batzuk okupatzea kudeatu zuen alkateak, bidea zabaltzeko eta hirigintza hobetzeko, hirigintzaren eta teknikaren arloko aholkularitzaz baliatuz.

. - Mikel Zabalak 13 urte daramatza Udaletik kanpora, eta Eli Laburu alkatea izan zen, bere taldearekin, haren ondorioei arretarik jarri ez ziena; hala, bada, orduko hartan konpontzen erraza zen arazo bat ez bideratzeagatik orain gehiegi nahaspilatu da.

. - Bukatzeko esan du gertatzen ari den guztia iruzurra dela, Bildu duela 17 urteko prozesu bat berpizten ari dela eta Udalak epaiketa galduko duela. Hori dela eta, alkateari galdetu dio ea prest dagoen etor litekeenari aurre egiteko.

H1eko zinegotzi Imanol Lizarralde hartu du hitza. Adierazi du pertsona baten aurkako prozesua dela, Bildu pertsona baten aurkako prozesu politiko bat

que se ratifica en lo manifestado en la comisión de urbanismo. Señala que no han tenido conocimiento de la instrucción, y que de la documentación que se ha puesto a disposición del grupo, por el contenido se requiere mucho tiempo y especialización para poder analizar todo el contenido.

Señala que Bildu está desarrollando un juego político con este tema, y poner todo el peso sobre una única persona es un error. Esto no tiene recorrido.

Interviene el concejal de H1 Bixente Arrizabalaga quien señala que se ratifica en lo manifestado en la comisión de urbanismo y añade que Bildu resucita la inquisición, y da lectura a un escrito, reseñando, entre otros:

. - Este asunto ya fue objeto de amplia discusión al final de la legislatura pasada.

. - La gestión de Mikel Zabala, entonces alcalde de EA, en una de las legislaturas más productivas y de mayor avance en el desarrollo de Astigarraga, gestionó la ocupación de unos terrenos en Bidebitarte para ampliar la carrerera y mejorar la urbanización con asesoramiento urbanístico y técnico.

. - Mikel Zabala lleva 13 años fuera del ayuntamiento y fue la alcaldesa Eli Laburu, con su equipo, la que no atendió a las consecuencias, de no resolver en su momento un problema que era fácil de solucionar y que lo ha complicado en exceso.

. - Concluye señalando que esto es una farsa, que Bildu resucita un proceso de hace 17 años, y que el ayuntamiento perderá el juicio, y pregunta al alcalde si está dispuesto a asumir lo que se derive de ello.

Interviene el concejal de H1 Imanol Lizarralde quien señala que es un proceso contra una persona, que Bildu



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

sortzen ari dela Astigarragan, eta horrek Udalaren aurkako kostu bat ekarriko duela. Erantsi du, Bilduk kalte-ordainik eman behar ez dela ondorioztatzen duen arren, epaiak argi uzten zuela kalte-ordainak ordaindu behar zirela. Prozesu horrek ez du ibilbiderik.

Alkateak adierazi du espedientearen instrukzioaren ondorioetan jasotzen dela hitzarmenean aipatzen zen uestezko kalte-ordaina fikziozkoa zela, Elgopebi ez zuelako bolumen-murrizketaren truke kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik, Plana gauzatzeko epea bukatuta baitzegoen.

Gogorarazi du, orobat, Mikel Zabala alkatetzan zegoelarik (1995-1999 agintaldian) Elgopebi alkateari zuzendu zitzaiola kalte-ordaina eskatzeko, baina Mikel Zabalak ez zuela gaia konpondu. Ondoren, Eli Laburu alkate egin zenean, helegitea aurkeztu zioten Elgopebiren eskaerari; baina 2003ko epaian Elgopebiri ordaindu behar zitzaiola xedatzen bazen ere, ez zen agindu hori bete. Une hartatik aurrera, kalte-ordainen zenbatekoa 146.298,53 eurora igo da, baina erruztatuak dioen bezala, zenbateko hori ezin zaio berari egotzi, erantzukizuna zuena baita. Alkateak, bere esku-hartzea bukatzeko, adierazi du Bilduren nahia diru hori udalerrarentzat berreskuratzea dela.

EAJko zinegotzi Zorionek esku hartu du orduan. Esan du hitzarmena zuzenbide osoz baliogabea bazen ere, bere konpromisoak bete zituela eta Udalari eman zizkiola bidea egiteko lursailak. Horrela, aztertu beharko da noiz eta zer modutan jaso ziren bidea egiteko lursail horiek. Izan ere, erantsi du, bukatzeko, ez politikoez ez eta teknikariek ere ez zituztela behar bezala neurtu edo balioetsi hitzarmen horren garapenak izan zitezakeen ondorioak.

Alkateak esan du, orduan, lurak Udalari eman behar zitzaizkiola, baina ez ezeren

está creando en Astigarraga un proceso político contra una persona, que va a suponer un costo contra el ayuntamiento, y señala que Bildu concluye que no hay que indemnizar pero la sentencia dejaba claro que había que pagar la indemnización. Este proceso no tiene recorrido.

Interviene el alcalde señalando que la instrucción del expediente concluye que la supuesta indemnización que recogía el convenio era ficticia, porque Elgopebi no tenía derecho a indemnización por la reducción del volumen, por haber expirado el plazo de ejecución del Plan.

Recuerda que Elgopebi estando en la alcaldía Mikel Zabala durante el 1995-1999 se dirigió al alcalde para solicitarle la compensación pero Mikel Zabala no la solucionó. Luego con la incorporación de la alcaldesa Eli Laburu se recurrió la pretensión de Elgopebi y la sentencia dictada en el 2003 que ordenaba el abono a Elgopebi no se atendió, y a partir de ese momento se ha incrementado la indemnización en 146.298,53€, que como indica el inculpado ese importe no se le puede imputar a él, y esa responsabilidad es de vosotros. Concluye el alcalde señalando que la voluntad de Bildu es de recuperar este dinero para el municipio.

Interviene la concejal Zorione de EAJ/PNV, que si bien el convenio era nulo de pleno derecho la otra parte cumplió sus compromisos y cedió al ayuntamiento los terrenos del vial, que se deberá analizar cuando y en que concepto se recibieron los terrenos para la ejecución del vial. Concluye señalando que ni los políticos ni los técnicos no midieron o valoraron las consecuencias del desarrollo del convenio en cuestión..

El alcalde interviene que la cesión de los terrenos debía hacerse al ayuntamiento,



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

kalte-ordain gisa, baizik eta nahitaezko lagapen gisa.

H1eko zinegotzi Imanol Lizarralde hartu du hitza. Adierazi du epaitegiak kalte-ordainak ordaindu behar direla dioen arren, zuek hori fikzioa dela diozuela. Alkateak horri erantzun dio hitzarmenean jasotako kalte-ordaina dela fikziozkoa, egiazki.

Bixente Arrizabalagak hartu du hitza ondoren, Mikel Zabalak idatzi eta instrukzioan jasotako adierazpenak irakurtzeko. Honako puntu hauek nabarmendu dira:

1. Preskribatu duela Mikel Zabalaren gainean egon litekeen edozein erantzukizun, hipotetikoa izanda ere.
2. Udalak 2000ko ekainean Elgopebi SMren gutun bat jaso zuela, hitzarmena bete zezala eskatzen zuena, eta Udalak balio gabetasuna argudiatuta prozedura judiziala has zezakeela orduan, baina ez zuela halakorik egin.
3. Ez dago Mikel Zabalari edozein motatako erantzukizunik egozten dion ebazpen judizialik.
4. Prozeduraren sumario-izaerak ez du justifikatzen instruktoreak bere izapideetan izan duen partzialtasuna. Bukatzeko esan du hau guztia farsa bat dela, alkate ohi bati errua egozteko, eta horren bidez Bilduk egindako kudeaketaren eraginkortasun eza estali nahi dela. Erantsi du jasangaitza dela 17 urteren buruan gai horrekin jarraitzea.

Raul zinegotziak galdetu du zergatik itxaron diren 8 urte ordainketa egiteko, 2003ko epaiak kalte-ordainaren zenbateko zehatza finkatu bazuen.

Alkateak ere galdetu du zergatik ez zuten 2003an ordaindu, Justizia Auzitegi Nagusiaren aurkako epaia jasotzean. Itaundu du, orobat, zertan aritu diren ordutik hona zenbateko hori ordaindu gabe.

pero no como compensación de nada sino como cesión obligatoria.

Interviene el concejal Imanol Lizarralde de H1, quien señala que los Tribunales dicen que hay que indemnizar pero vosotros decís que eso es ficticio. Contesta el alcalde señalando que lo que es ficticia la compensación recogida en el convenio.

Toma la palabra el concejal Bixente Arrizabalaga quien da lectura parcial del escrito remitido por Mikel Zabala en la instrucción, en la que destaca:

- 1º.- Que ha prescrito cualquier responsabilidad que si siquiera hipotéticamente pudiera recaer sobre Mikel Zabala.
- 2º.- Que el ayuntamiento en el mes de junio de 2000 recibió escrito de Elgopebi SL instándole el cumplimiento del convenio, podía haber instado el procedimiento judicial instando la nulidad, pero que no lo hizo.
- 3º.- Ninguna resolución judicial alude a la incursión por parte de Mikel Zabala en ámbito de responsabilidad alguna.
- 4º.- El carácter sumarial del procedimiento no justifica la parcialidad mantenida por el instructor en su tramitación; concluye señalando que todo esto es una farsa, para inculpar a un ex alcalde, y con el que quiere tapar la ineficacia de la gestión de Bildu, y finaliza que es insostenible mantener esto después de 17 años.

El concejal Raul pregunta porqué habeis tardado 8 años en pagar cuando la sentencia del año 2003 ya determinó el importe de la indemnización.

El alcalde interviene preguntando porque no pagasteis en el 2003 al recibir la sentencia desfavorable del Tribunal Superior de Justicia? Qué habeis estado haciendo desde esa fecha sin pagar el importe?



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Joxemi Jimenez herritarra mintzatu da. Esan du aurreko legegintzaldian irakurri ahal izan zuela aztergai den espediente, zinegotzi guztien eskura egon baitzen, oraingoan bezala, eta espediente horren arabera Elgopebi 1996an zuzendu zitzaiola Udalari lehen aldiz, artean Mikel Zabala alkate zela. Nekane Martinezen txostenaren bidez Udalak erantzun zuen Barne Erreformako Plan Berezi bat egin behar zela eta erantzungo zuela. Gero, HBren legegintzaldian, Joxemi Jimenez bera hirigintzako buru zelarik, interesatuak 2000. urtean hitzarmena betetzeko eskatu zuen, baina hitzarmen hori baliogabetzat jo eta ez genuen onartu; horrela, 2001ean Elgopebi SMk errekurtsioa aurkeztu zuen Auzitegi Nagusian, eta azken horrek interesatuaren aldeko epaia eman zuen 2003an. Hori ikusita, Auzitegi Gorenera helegitea aurkeztea erabaki zuen Udalak 2003 hartan bertan.

Gero hurrengo legegintzaldia hasi zen, urteak igaro ziren, eta 2003ko epaitik ez duzue ordaindu. Elarrerekin negoziatzen jardun duzue, baina Udalak bere gain hartu behar izan dituen interesak sortu dira.

2000. urteko Osoko Bilkura batean, Joxemi Jimenezek Mikel Zabala zinegotziari galdetu zionean hitzarmen horrekin lotutako erantzukizunak nork hartuko zituen bere gain, Mikel Zabalak erantzun zuen arduraduna bera zela. Zorionek aipatzen zuen lursail-emateari dagokionez, adierazi zu 1996ko urriaren 31ko Gobernu Batarrean adostu zela, EAko eta EAJko zinegotzien aldeko botoekin eta HBko zinegotziaren aurkakoarekin, arkitekto aholkulariaren txostena onartzea, eta onartzea, batetik, 1585,15 m<sup>2</sup>-ko banaketa eta, bestetik, lursaila jasotzearen ezegokitasuna, Kostaldean Zuzendaritzaren ebazpena iritsi arte.

Toma la palabra el vecino Joxemi Jimenez, indicando que en la anterior legislatura tuvo ocasión de leer el expediente en cuestión que estuvo a disposición de todos los concejales como ahora también se ha hecho; e indica que la primera vez que se dirige Elgopebi al Ayuntamiento pidiendo la compensación es en el año 1996 cuando Mikel Zabala continuaba como alcalde, y en el informe de Nekane Martínez se le indica que se va a realizar un Peri y que se contestará. Posteriormente con la legislatura de HB siendo yo presidente de urbanismo el interesado en el año 2000 solicitó la ejecución del convenio que no lo aceptamos por ser nulo dicho convenio; Elgopebi SL recurre en el 2001 ante el Tribunal Superior y en febrero de 2003 dicta sentencia favorable al interesado, y el ayuntamiento en el 2003 acordamos recurrir al Tribunal Supremo

A partir de ahí, se inicia vuestra legislatura y pasaron los años y tras la sentencia del 2003 no habéis pagado y habéis estado negociando con Elarre, pero se han generado intereses que ha tenido que asumir el ayuntamiento.

En el año 2000 en un pleno a pregunta que formula Joxemi Jiménez al concejal Mikel Zabala en relación a quien asumirá las responsabilidades de ese convenio contesta Mikel que el responsable es él. En relación al tema de la cesión de terrenos que apuntaba Zorione indica que la Junta de Gobierno el 31.10.1996 con los votos a favor de los concejales de EA y EAJ y voto en contra del concejal de HB, se acordó ratificar el informe del arquitecto asesor, aprobar la segregación de 1585,15m<sup>2</sup>, y la no procedencia de la recepción del terreno en tanto no resuelva la Dirección General de Costas.





## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

#### **4. Informazioa, galdera-erreguak**

Bixente Arrizabalaga zinegotziak hainbat jarduerari buruz galdegin du, hala nola, Kale Nagusiko aparkalekuari buruz, eta bide publikoetan egiten ari diren beste lan batzuei buruz. Herri Lanen Batzordeko buruari galdetu dio ea bilera deituko duen. Azken horrek erantzun dio Bidebitarteko biribilgunearen gaiarekin aurrerapausoak izan direla eta maiatzeko lehen hamabostaldirako deituko dutela Batzordea.

#### **4. Información, ruegos y preguntas**

El concejal Bixente Arrizabalaga pregunta en relación a distintas actuaciones como aparcamiento en la calle Mayor, y otras actuaciones que se están realizando en la vía pública y pregunta al presidente de la Comisión de Obras si va a convocar una reunión de la Comisión.

El presidente de la comisión de obras contesta que están avanzando con el tema de la rotonda de Bidebitarte y que la primera quincena de mayo se celebrará la Comisión.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2012ko apirilaren 27an

Xabin Olaizola Lasa  
Idazkaria